



ESKOLA BATZARREKO ERABAKIEN ZIURTAPENA ETA ARGITARATZEKO AGINDUA

BATZARRAREN DATA: 2013ko azaroak 21

EDURNE SEIJO HERNANDORENAK, UPV/EHuko Arkitektura Goi Eskola Teknikoko Idazkariak, 2013ko azaroaren 21eko Ohiko Eskola Batzarrean hartutako erabakiak ziurtatu ditu eta Ikastegiko iragarki-taulan eta ohiko baliabide informatikoen bitartez argitaratzeko agindua eman du.

E R A B A K I A K

1 Puntua

Plazen eskaera berrestea

Irakasleen plazen eskaerei eta lanpostuen zerrendaren aldaketarako eskaera bati onespina ematea adostu da.

Masterraren irakaskuntza eskaintzeko Ikastegiko baliabideak erabiltzeko baimena berrestea

Ikastegiko espazio fisikoak eta ekipamendua erabiltzeko baimena ematea adostu da, Ikastegiak horretarako finkatuta duen protokoloa errespetatuz eta beti ere, Graduak irakaskuntza lehenetsiz.

2 Puntua

2013/14 ikasturterako Ikastegiaren jai eguna onestea

2013/14 ikasturterako Ikastegiaren jai eguna 2014ko maiatzaren 2a izatea onartu da.

3 Puntua

Fisikako ikasgaien konbalidazio taula onartzea

Fisikako ikasgaien konbalidazio taula onartzea adostu da.

4 Puntua

Ikastegiko Hauteskunde Batzordearen osaeran ordezkioak eransteko 2013ko ekainaren 13ko Batzarraren aktari erantsi behar zaion diligenzia onartzea

2013ko ekainaren 13ko Batzarraren aktari diligenzia eranstea onartu da honela, aipatutako Batzarrean hautatu ziren ordezkioak, Ikastegiko Hauteskunde Batzordearen osaeran erantsi ahal izateko.

5 Puntua

Ikastegiko lehenengo Kalitate Batzordearen eraketa eta izendapena onartzea

Ikastegiko Zuzendaritzak Kalitate Batzordeko proposatutako kideen izendapena eta Batzordearen eraketa ere onartzea erabaki da.

6 Puntua

Ikastegiko Batzarraren Batzorde Iraunkorra eratzea onartzea. Eskola Batzarraren Batzorde Iraunkorrerako hauteskunde-deialdirako akordioa eta hauteskunde-egutegia onartzea.

Batzarraren Batzorde Iraunkorra eratzea onartzea adostu da. Hauteskunde-deialdirako akordioa eta hauteskunde-egutegia onartzea adostu da.



7 Puntua

Gradurako Sarbide Proba kentzeko proposamena onartzea

Gradurako Sarbide Proba kentzea erabaki da.

8 Puntua

KAPeko aurreproiektua aurkezteko deialdi bat gehiago ezartzeko lkasle Kontseiluaren proposamena onartzea

KAPeko aurreproiektua aurkezteko beste deialdi bat gehiago ezartzeko proposamena onartzea adostu da. 2013/14 ikasturterako deialdi berri horretako aurkezpen data 2014ko martxoaren hasierarako finkatuko dela adostu da.

9 Puntua

2014 urte hasieran Eskolako eraikinean burutuko diren lanen eta aurrekontuen harira (2013 urtekoaren kontura) Zuzendaritzaren proposamena onartzea

2014 urte hasierarako Eskolako eraikinean burutuko diren lanen eta aurrekontuen harira (2013 urtekoaren kontura) Zuzendaritzak egindako proposamena onartzea erabaki da.

1 **ERANSKINA** (Fisikako ikasgaien kredituen aitortpena)

2 **ERANSKINA** (Ikastegiko Hauteskunde Batzordearen osaera, ordezkioak ere erantsita)

3 **ERANSKINA** (Ikastegiko lehenengo Kalitate Batzordearen osaera)

4 **ERANSKINA** (Batzarraren Batzorde Iraunkorrerako hauteskunde-deialdirako akordioa eta hauteskunde-egutegia)

Donostian, 2013ko azaroaren 25ean



Izp.:Edurne Seijo Hernandorena
AGET-eko Idazkari Akademikoa



1 ERASKINA

PROPOSAMENA, 1983ko PLANARI JARRAITUZ FISIKAREN ARLOAN EGINDAKO IRAKASGAIK ARKITEKTURAREN OINARRIETAKO GRADUAN AITORTZEKO

Aurrekariak:

2003/04 ikasturtean Arkitekturako Ikasketa Plana ezarri zen, 2003ko Plana, hain zuzen ere, eta ikasketa Plan horretan jasota zegoen aurreko planeko ikasketak (1983ko Planekoak) egokitzeko taula. Ikasturte horretan bertan Arkitekturako 1983 Plana desagertzeko biderei ekin zitzaion eta 2010/11 ikasturtean desagertu ziren guztiz plan horretako ikasketak.

2010/11 ikasturtean indarrean sartu zen Arkitekturako Gradua, eta Arkitekturako 2003ko Plana desagertzeko prozesua hasi zen.

2011/12 ikasturtean Arkitekturaren Oinarrietako Gradua ezarri zen Arkitekturako Graduaren ordean, eta, beraz, azken hori desagertzeko prozesua jarri zen martxan. Ikasketa Plan horretan jasota zegoen 2003ko Planeko ikasketak egokitzeko taula.

Espedienteak egokitzeko prozedura:

Ikasketak bertan behera utzi zituen ikasleak ikasten jarraitu nahi badu, unean indarrean dagoen planari jarraitu beharko dio, plan horretara egokituta lehendik ikasitakoak.

Espedientea egokitzeko, ikasleari eragiten dioten ikasketa plan desberdinetako egokitzapen taulak erabili behar dira. Hau da: ikasleak 1983ko Planarekin hasi bazituen ikasketak eta Arkitekturaren Oinarrietako Graduan jarraitu nahi badu ikasten, lehenengo eta behin 1983ko Planetik 2003ko Planera igarotzeko egokitzapen taula ezarriko zaio, eta, ondoren, 2003ko Planetik Arkitekturaren Oinarrietako Gradura egokitzekoa.

Aztertu ditugu eskolan indarrean egon diren ikasketa planak eta aldaketa bakoitzerako zehaztutako egokitzapen taulak, eta ondokoa ikusi dugu:

Egokitzapenak:

<u>1983ko Planetik</u>	<u>2003ko Planera</u>
1128 Fisika I	20444 Arkitekturaren oinarri fisikoak
1135 Fisika II	20477 Fisika aurreratua

<u>2003ko Planetik</u>	<u>Arkitekturaren Oinarrietako Gradura</u>
20444 Arkitekturaren oinarri fisikoak	26351 Egonkortasuna eta Isostatikotasuna
20477 Fisika Aurreratua irakasgaiak ez dauka egokitzapenik graduko irakasgaiekin	

Aztertu dira Arkitekturaren Oinarrietako Graduko 26350 Inguru fisikoari buruzko kontzeptuak (1. mailakoa) eta 26351 Egonkortasuna eta Isostatikotasuna (2. mailakoa) gaien ikasketen gidaliburuak, eta edukiak konparatu 1983ko Planeko 1128 Fisika I (1. mailakoa) eta 1135 Fisika II (2. mailakoa) irakasgaiekin, eta Fisika Aplikatua Saileko irakasleen ustez, oro har, 1983ko Planeko fisikako bi irakasgaien edukiak eta Arkitekturaren Oinarrietako Graduko fisikako bi irakasgaien edukiak antzekoak dira.

Hori guztia kontuan hartuta, Eskolako Batzarrak **ERABAKI DU KREDITUAK AITORTZEKO ONDOKO IRIZPIDEAK ONARTZEA:**

Ikasleak 1983ko Planean hasi bazituen ikasketak eta Arkitekturaren Oinarrietako Gradura egokitu nahi baditu, egokitzapen tauletan jasotako egokitzapenez gain, ondoko irakasgaia baliozkotu ahal izango du: 26350 Inguru fisikoari buruzko kontzeptuak (1. mailakoa), betiere, 1983ko Planean gaindituta baditu 1128 Fisika I eta 1135 Fisika II irakasgaiak.



ARKITEKTURA GETko HAUTESKUNDE BATZORDEA / COMISIÓN ELECTORAL de la ETS de ARQUITECTURA

(Irakasle, AZP eta Ikasleen ordezkariak, 2013ko ekainaren 13ko Arkitektura GETko Ezohiko Batzarrean hautatuak. // Los representantes del profesorado, PAS y Alumnado elegidos en Junta Extraordinaria de la ETS de Arquitectura de fecha 13 de junio de 2013)

**Batzorde buru (Zuzendaria)
Presidente de la Comisión (Director)**

Juan José Arrizabalaga

Idazkaria / Secretaria

Eduarne Seijo Hernandorena

**Irakasle eta Ikertzaile Iraunkorrek / Personal Docente e Investigador
Permanente**

Titularra / Titular: Alberto Zulueta Goyenechea

Ordezkoa / Suplente: Luis Sesé Madrazo

Gainerako Irakasle eta Ikertzailea / Otro Personal Docente e Investigador

Titularra / Titular: Ibon Salaberria San Vicente

AZP / PAS

Titularra / Titular: Gema Ortega Resano

Ordezkoa / Suplente: Iñaki Peñagarikano Garmendia

Ikasleak / Alumnado

Titularra / Titular: Ibai Riol Izagirre

Ordezkoa / Suplente: Garazi Sarrionandia del Hierro

3 ERANSKINA

KALITATE BATZORDEA // COMISIÓN DE CALIDAD

(EHAako 2013ko azaroaren 21ean argitaratu geroztik indarrean dagoen Ikastegiko Kalitate Batzordeko 4. Artikuluaren aldaketaren arabera 2013ko azaroaren 21eko ohiko Eskola Batzarrean izendatuta / Nominada en Junta de Escuela en sesión ordinaria de 21 de noviembre de 2013 y según la modificación del artículo 4 del Reglamento de la Comisión de Calidad del Centro en vigor desde su publicación en BOPV de fecha 21 de noviembre de 2013).

**Batzorde buru (Zuzendaria edo bere ordezkoa) /
Presidente de la Comisión (Director o persona en quien delegue)**

José Miguel Rico Martínez

Gradu zuzendariordea / Subdirector de Grado

Ramon Barrena Etxebarria

Gradu Koordinatzailea / Coordinador de Grado

Mario Sangalli Uggeri

Administraria / Administradora

M^a Rosa Lana Huici

Sailletako ordezkariak / Representantes de los Departamentos

Arkitektura Saila (2 ordezkari) / Dpto. de Arquitectura (2 representantes)

Olatz Irulegi Garmendia
Alex Mitxelena Etxebarria

Euskal Filologia Saila / Departamento de Filología Vasca

Ines Pagola Hernandez

Fisika Aplikatua Saila / Departamento de Física Aplicada

Enkarni Gomez Genua

Ingeles Filologia Saila / Departamento de Filología Inglesa

Christian Brase

Matematika Aplikatua Saila / Departamento de Matemática Aplicada

Edurne Seijo Hernandorena

AZPko ordezkaria / Representante del PAS

Beatriz Díez Merino

Ikasleen ordezkaria / Representante del Alumnado

Ibai Madariaga Sagastizabal



4 ERANSKINA

ARKITEKTURA ESKOLAKO BATZARRAREN BATZORDE IRAUNKORRERAKO HAUTESKUNDE EGUTEGIA

Hauteskundeak egiteko erabakia hartzea	2013ko azaroaren 21ean (osteguna)
Hauteskundeak egiteko erabakia argitaratzea	2013ko azaroaren 21ean (osteguna)
Hautagai zerrendak aurkezteko azken eguna	2013ko azaroaren 27ko 10:00ak arte (asteazkena)
Behin-behineko hautagai zerrendak aldarrikatzea	2013ko azaroaren 27an (asteazkena)
Hautagai zerrendak inpugnatzea	2013ko abenduaren 2ko 10:00ak arte (astelehena)
Behin-betiko hautagai zerrendak aldarrikatzea	2013ko abenduaren 3a (asteartea)
BOZKETA	2013ko abenduaren 11ko eguerdiko 12:00etan (asteazkena)
Emitza behin-behingo aldarrikatzea	2013ko abenduaren 11n (asteazkena)
Emitza inpugnatzea	2013ko abenduaren 13ko 10:00ak arte (ostirala)
Behin-betiko aldarrikapena	2013ko abenduaren 16an (astelehena)



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

ARKITEKTURA GOI ESKOLA TEKNIKOA
ESCUELA TECNICA SUPERIOR DE ARQUITECTURA

Edurne Seiyo Hernandorena

Euskal Herriko Unibertsitateko Arkitektura Goi Eskola Teknikoko Idazkari Akademikoak,

ZIURTATZEN DU:

Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoko Ikastegiko Batzarrak, 2013ko azaroaren 21ean behar bezala egindako ohiko bilkuran, isileko baiezen bidez honako erabaki hau hartu duela:

1.- Arkitektura Goi Eskola Teknikoko Batzarraren Batzorde Iraunkorrerako hauteskunde-egutegia eta hauteskunde-deialdia onestea

Ziurtagiri honi erantzen zaio: Arkitektura Goi Eskola Teknikoko Batzarraren Batzorde Iraunkorra hautatzeko hauteskunde-egutegia

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau sinatu eta luzatzen du,



Donostian, 2013ko azaroaren 21ean

Izp.: Edurne Seiyo Hernandorena
AGETko Idazkari Akademikoa